URTEAN ZEHARREKO XVIII. DOMEKEA - B

SARRERAKO OHARKIZUNA

Senideok, Eukaristia ospatzera goaz. *"Egizue hau neure oroigarri"*, esan euskun Jesusek; eta, domekero lez, gaur ere Jesusen agindua bete nahi dogu.

Mezetara "etorteak", edo mezea "entzuteak" bakarrik ez gaitue asko aberastuko. Meza santuan parte hartu behar dogu: Jaunari entzun eta erantzun egin behar deutsagu; Berak eskeintzen deuskuzan dohaiak esker onez hartu; Salbamen misterioa ospatu eta gure arteko anaitasuna barriztau.

Asmo honeekin, zutundurik, hasi dagigun otoitzaldi hau:

"Igandetan elizan..."

DAMU-OTOITZA

Senideok, sarritan geure gauzakin bakarrik arduratuta bizi gara. Damutu gaitezan Jaungoikoagandik eta lagunurkoagandik urrundu garealako, eta parkamena eskatu dagigun:

- Jesus Jauna, zure aginduak beteten ez ditugulako. ERRUKI, JAUNA.
- Jesus Jauna, Zu gure janari izan arren baztartzen zaitugulako. KRISTO, ERRUKI.
- Jesus Jauna, Zuk agindu deuskuzun lez, behartsuak maitatzen ez ditugulako. ERRUKI, JAUNA.

HITZAREN LITURGIA

Ex 16, 2-4. 12-15:

Egiptotik urten ondoren, Israel herria basamortuan zehar doa, gosez hilteko bildurrez. Baina, Jaungoikoa ez da ahaztuko Beretzat aukeratutako herriaz, eta "mana" emongo deutso janari.

Erantzun-Salmoa: *"Jauna dot Artzain..."*

Ef 4, 17. 20-24:

San Paulok Efesoko kristinau barriei hauxe eskatzen deutse: Jaungoikoaren deiari zuzen erantzun deioela, gizon eta emakume barri lez biziz.

Jn 6, 24-35:

Ebanjelioan, Bera dala Ogi bizia esango deusku Jesusek; Berak ase leikezala gure gose-egarriak. Zutunduta, goratu dagigun Jauna, *"Aleluia"* abestuz.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Senideok, egin deiogun otoitz zeruko Ogia eskeintzen deuskun Jaungoiko Aitari:

- Elizea egiten dogun fededun guztion alde: Eukaristian Jaunak emoten deuskun Ogi bizia hartzen dogunok, gizon-emakume barri lez bizi gaitezan. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.
- Gose diranen alde, sinisten ez dabenen alde, geisorik eta sufrimentuz josita bizi diranen alde: aurkitu dagiela Jaunak eskeintzen dauan poza eta lortu dagiela gugandik laguntasuna. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.
- Oporretan dagozanen alde: nor eta zer diran ahaztu barik jokatu dagiela beti; eta oporraldia pertsona lez eta fededun lez hazteko aukerea izan daitela eurentzat. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.
- ...
- Ospakizun honetan alkartuta gagozan guztion alde: fedez beterik hurreratu gaitezala beti amaibako bizia emoten deuskun Ogi santua hartzera. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

Jainko Aita, Zeuk bialdu deuskuzu Jesukristo, gure Ogi bizia. Ikusi gure beharrizanak eta

emoiguzu zeure laguntza. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

AZKEN AGURRA

Jesusek esan deusku: *"Egizue lan, ez ondatzen dan janariagaitik, betiko bizitzaraino irauten dauanagaitik baino"*. Materialismoan jausi bariak igaro dagigula astea.

"Eskerrik asko, Jauna..."